

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTATU NAGUSIA

*4/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituen.*

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «4/2022 Foru Araua, abenduaren 20koa, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko neurriak onesten dituen»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2022ko abenduaren 20a.—Markel Olano Arrese, Gipuzkoako diputatu nagusia. (8498)

HITZAURREA

Foru arau honek aldaketak sartzen ditu zenbait figura tributarioen erregulazioan iruzurra prebenitzea eta haren aurka egitea helburu duten jarduketak errazteko, kontrola indartzeko eta zerga justiziaren parametroak finkatzeko.

Zehazki, figura tributario hauek aldatzen dira: zergen foru arau orokorra, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga. Jarraian, sartzen diren aldaketa nagusiak zehazten dira.

Zergen foru arau orokorrean, berandutze interesen erregulazioa egokitzen da espresuki aitorzeko zerga bakoitzaren arauditik eta bidegabeko diru-sarretatik eratorritako itzulketetan ez dela berandutze interesik sortuko epealdi jakin batzuetan.

Era berean, ez-egoiliarren ordezkaritza araubidea egokitzen da, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat etor dadin.

Beste berme batzuk aurkeztuta edo bermeak aurkeztetik salbuetsita abiatzen diren etete prozedurak iruzurrez erabil ez daitezten, horiek tramitatu bitartean kautelazko neurriak hartzeko aukera gehitzen da.

Aldaketak sartzen dira zerga zordunen zerrendaren araubidean. Horrela, 600.000 eurora murrizten da zerrendan sartzeko gainditu behar zenbatekoa.

Era berean, erantzule solidarioak espresuki sartzen dira zerranda horretan.

Zerga zorrak eta zehapenak borondatez ordaintzea sustatze aldera, egoki iritzi da onartzea ezen, hasiera batean, erreferentziako data orokorrean, abenduaren 31n, zerrendan sartuta dagoen zorduna zerranda horretatik kanpo gera dadila baldin eta, alegazioak aurkezteko epea amaitu baino lehen, zor den zenbatekoaren zati bat ordaintzen bada (gutxienez erreferentziako

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DIPUTADO GENERAL

*Norma Foral 4/2022, de 20 de diciembre, por la que se aprueban medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal.*

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 4/2022, de 20 de diciembre, por la que se aprueban medidas de prevención y lucha contra el fraude fiscal», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 20 de diciembre de 2022.—El diputado general de Gipuzkoa, Markel Olano Arrese. (8498)

PREÁMBULO

Esta norma foral contiene modificaciones en diversas figuras tributarias con la finalidad de introducir cambios en su regulación dirigidos a facilitar las actuaciones tendentes a prevenir y luchar contra el fraude reforzando el control, así como asentar unos parámetros de justicia tributaria.

Las figuras tributarias objeto de modificación son la norma foral general tributaria, los impuestos sobre la renta de las personas físicas, sobre sociedades, sobre el patrimonio, sobre la renta de no residentes, sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados, y sobre sucesiones y donaciones. A continuación se describen las principales modificaciones introducidas.

En la norma foral general tributaria, se adapta la regulación de los intereses de demora para reconocer de forma expresa que no se devengarán en las devoluciones derivadas de la normativa de cada tributo y de ingresos indebidos durante determinados periodos.

Asimismo, se adapta el régimen de representación de los no residentes para adecuarlo al Derecho de la Unión Europea.

Para evitar que los procedimientos de suspensión con otras garantías, o con dispensa de ellas, sean utilizados de forma fraudulenta, se incorpora la posibilidad de adoptar medidas cautelares durante la tramitación de los mismos.

Se modifica el régimen de la lista de deudores tributarios y deudoras tributarias. Así, se disminuye a 600.000 euros el importe cuya superación conlleva la inclusión en dicha lista.

Asimismo, se incluye expresamente en la citada lista a los responsables solidarios.

Al objeto de fomentar los ingresos voluntarios de las deudas y sanciones tributarias, resulta aconsejable permitir que la persona o entidad deudora incluida, en principio, en el listado en la fecha general de referencia, 31 de diciembre, pueda ser excluida del listado siempre que antes de la finalización del plazo para formular alegaciones se efectúe el pago de un importe de

datan dagoen zorraren 100eko 25) eta, zenbateko hori behin ordainduta, ordaintzeke geratzen diren zorrak eta zehazpenak gutxira 600.000 euro baino handiagoak ez badira.

Azkenik, zerrenda horren esparruan, datuen babesari buruzko erreferentzia normatiboak eguneratzen dira. Gainera, foru arau honek xedapen iragankor bat ezartzen du zerrendaren 2023 urteko argitalpenarekin lotuta.

Auzitegi Gorenaren azken doktrina jurisprudenzialaren argitan, prozedurazkoak baino ez diren zenbait aldaketa ere sartzen dira zergen foru arauan. Aldaketa horiek ez dute eraginik ez egoitzaren bortxaezintasunerako oinarriko eskubidearen edukian eta ez kontrol judizialaren bermeetan, baina argitu egiten dute zergapekoaren egoitzan sartzeko baimen judizialaren araubidea, sarrera hori Zerga Administrazioak eskatzen duenean tributuak aplikatzeko jarduketara edo prozedura baten barruan.

Era berean, hobetu egiten da finketan, negozio-lokaletan eta abarretan sartzeko behar diren baimenen idazkera, eta prozedura ere argitzen da.

Zorrak geroratzeko, zatikatze, konpentsatzeko, eteteko edo gauz ordaintzeko eskaerak behin eta berriz aurkeztearen erabilera desagokia saiheste aldera -epe exekutiboaren hasiera atzeratzea izaten baitu helburu-, xedatzen da ezen eskaerak behin eta berriz aurkezteak, aurretik aurkeztutakoak ukatu direnean eta dagokion diru-sarrera egin ez denean, ez duela epe exekutibo hastea galarazten. Orobat, ordaintzeko borondatezko epea bakarra den neurrian, argitzen da konkurtso deklarazioak ez duela ezekin eraginik izango epe horretan.

Indarrean dagoen araudia argitze aldera, erantzukizun solidarioa eskatzeko prozeduraren ondorioetarako, zehazten da zorrak ordaintzeko borondatezko epea ordaintzeko eman den lehen epea izango dela eta zordun nagusiarekin gertatutako gorabeherak, hala nola etendurak edo gerorapenak, ez direla proiektatu behar erantzulearekin jarraitzen den prozeduran.

Arau-hausle izan daitezkeen zerrenda aldatzen da, subjektu horiek tratamendu homogeen bat izan dezaten bai sozietateen gaineko zergaren baterakuntza fiskaleko araubidean, bai balio erantsiaren gaineko zergaren entitate taldeen araubide berezian.

Lege babesaren ematen zaio bermeak aurkeztetik guztiz edo partez salbuetsitako etete eskaerak berraztertze errekurtsoaren xede den egintza eman zuten organoek eta Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak ez onartzeko aukerari, baldin eta espedienteari erantsitako dokumentaziotik ondorioztatzen bada eskaerak ez dituela betetzen onartua izateko ezarritako baldintzak. Iruzur praktikak saihesteko helburu berberekin -etete eskaera jakin batzuk izapidetzeko zailtasuna aprobetxatuz egiten direnak-, lege maila ematen zaio Zerga Administrazioak bere jarduketarekin jarraitzeko aukerari, zerga zorra epe exekutiboan dagoen kasuetan.

Tributuaren araudi orokorrean aitortuta geratzen da Deggenдорfen printzipioa, Europar Batasuneko Justizia Auzitegi C-355/95 P gaiari buruzko epaian berretsi duena. Haren arabera, enpresa bati ezin zaio eman estatu laguntza indibidual berririk enpresa horrek Europako Batzordearen Erabaki batetik ondorioztatutako itzulketa betebeharra bete gabe duenean.

Zerga errolden kudeaketa hobetze aldera, identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatzeko araubidea aldatzen da, zenbakia errebokatu duten entitate inaktiboek ezin izan dezaten inskripzio egin inongo erregistro publikotan, ezta eskriturarik formalizatu notariotzetan, orri bazterreko oharra ezerezteko ezinbestekoak diren izapideetan izan ezik. Ondorio horietarako, Notariotzaren Legean espresuki aurreikusten da edozein motako entitate juridikoa sortzen edo eratzen duen eskritura publikoan nahitaezkoa dela identifikazio fiskaleko zenbakia jartzea. Orobat, lege horretan sistema automatizatu bat ere aurreikus-

la cantidad adeudada, no inferior al 25 por 100 del importe de la cantidad adeudada a la fecha de referencia, de forma que, tras el pago, el total de las deudas y sanciones tributarias pendientes de ingreso no supere el importe de 600.000 euros.

Por último, en el ámbito de dicha lista, se actualizan las referencias normativas en materia de protección de datos. Además, la presente norma foral establece una disposición transitoria relativa a la publicación para el año 2023 del listado.

A la luz de la última doctrina jurisprudencial del Tribunal Supremo, se incluyen algunas modificaciones de alcance exclusivamente procedimental que, sin afectar al contenido del derecho fundamental a la inviolabilidad del domicilio ni a las garantías de control judicial, clarifican el régimen de autorización judicial de entrada en el domicilio de la persona obligada tributaria, solicitada por la Administración tributaria en el marco de una actuación o procedimiento de aplicación de los tributos.

Asimismo, se mejora la redacción relativa a las autorizaciones necesarias para entrar en fincas, locales de negocio, etc., y se clarifica el procedimiento.

A efectos de evitar el uso inadecuado de la presentación de reiteradas solicitudes de aplazamiento, fraccionamiento, compensación, suspensión o pago en especie con el ánimo de retrasar el inicio del periodo ejecutivo, se dispone que la reiteración de solicitudes, cuando otras previas hayan sido denegadas y no se haya efectuado el ingreso correspondiente, no impide el inicio del periodo ejecutivo. Asimismo, en la medida en que el período voluntario de pago es único, se aclara que dicho período no podrá verse afectado por la declaración de concurso.

Con el objeto de clarificar la normativa vigente, se especifica, a efectos del procedimiento de exigencia de la responsabilidad solidaria, que el período voluntario de pago de las deudas es el original de pago, sin que las vicisitudes acaecidas frente a la deudora o al deudor principal, como suspensiones o aplazamientos, deban proyectarse sobre el procedimiento seguido con la o el responsable.

Se modifica la enumeración de los posibles infractores e infractoras para dar un tratamiento homogéneo a los sujetos infractores, tanto en el régimen de consolidación fiscal del impuesto sobre sociedades como en el régimen especial del grupo de entidades en el impuesto sobre el valor añadido.

Se otorga cobertura legal a la posibilidad de inadmitir las solicitudes de suspensión con dispensa total o parcial de garantías por los órganos que dictaron el acto objeto de recurso de reposición y por el Tribunal Económico-Administrativo Foral, cuando de la documentación incorporada al expediente se deduzca que no cumplen los requisitos establecidos para la concesión de la solicitud. También, con la finalidad de evitar prácticas fraudulentas consistentes en el aprovechamiento de la dificultad para la tramitación de ciertas solicitudes de suspensión, se otorga rango legal a la posibilidad de la Administración tributaria de continuar con su actuación en aquellos supuestos en que la deuda se encuentre en período ejecutivo.

Se reconoce en la normativa general tributaria el principio de Deggendorf, confirmado en la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea en el asunto C-355/95 P, según el cual no se pueden conceder nuevas ayudas estatales individuales a una empresa que tenga pendiente de cumplir una obligación de reintegro derivada de una Decisión de la Comisión Europea.

Con el fin de mejorar la gestión de los censos tributarios, se modifica el régimen de revocación del número de identificación fiscal para que las entidades inactivas cuyo número haya sido revocado no puedan realizar inscripciones en ningún registro público, ni otorgar escrituras ante notaria o notario, a excepción de los trámites imprescindibles para la cancelación de la correspondiente nota marginal. A estos efectos, en la Ley del Notariado se prevé expresamente la obligación de incluir el número de identificación fiscal en la escritura pública por la que se cree o constituya cualquier tipo de entidad jurídica y se prevé también

ten da, zeinaren bidez Notariotzaren Kontseilu Nagusiak identifikazio fiskaleko zenbaki ezetzatua duten eta dokumentu publiko bat eman nahi izan duten entitateen identifikazioa komunikatu behar baitio Zerga Administrazioari, entitate horien kontrol eraginkorra hobetzeko eta iruzur egoerak saihesteko.

Nazioarteko parametro berriei jarraituz, «paradis fiskal» terminoa erabiltzeki utzi eta haren ordez «jurisdikzio ez-kooperatibo» terminoa ezartzen da.

Horrez gain, jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde eta lurraldeak zein diren zehazteari begira, eguneratze bat egin beharra dago nazioartean egin diren berrikuspenak eta lanak kontuan hartuta, bai Europar Batasunaren esparruan, bai ELGaren esparruan; izan ere, haien irizpideek posible egin dute jurisdikzio ez-kooperatibo jakin batzuk identifikatzea eta kategoria hori nazioartean uzteko zenbait konpromiso exijitzea. Horren ondorioa da herrialdeen zerrendak etengabeko berrikuspen proiektuan daudela.

Horrela, iruzur fiskalari modu eraginkorragoan aurre egiteko, beharrezkoa da paradisu fiskalaren kontzeptua zabaltzea eta, horretarako, jurisdikzio ez-kooperatibotzat zer hartzen den zehaztea, zerga ekitatearen eta gardentasunaren irizpideak aplikatuta eta ezaugarri hauek betetzen dituzten herrialde eta lurraldeak identifikatuta: benetako jarduera ekonomikorik gabe lurraldetik kanpo etekinak erakartzera bideratutako sozietateen existentzia errazten dutenak, tributazio txikia edo deuseza dutenak, opakuak edo gardentasun gabeak direnak, elkar laguntzaren esparruan zerga informazioa trukatzeko araudi aplikagarri hitzartu ez dutenak, Espainiarekin zerga arloko informazio truke efektiborik egiten ez dutenak, edo herrialde eta lurralde horiekin egindako informazio trukeen eraginkortasunari buruzko ebaluazioen emaitzengatik aintzat hartzekoak direnak. Era berean, iruzur mota jakin batzuei erantzun zehatzagoa emate aldera, komeni da identifikatzea iruzur fiskala errazten duten herrialde edo lurraldeetan ezarritakoetatik zein zerga araubide diren bereziki kaltegarriak. Alde horretatik, irizpide horiek finkatu ondoren, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak beharrezko xedapenak emango ditu jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotzen diren herrialde eta lurraldeen zerrenda argitaratzeko eta zerga araubide kaltegarrien berri emateko. Zerrenda horiek aldian-aldian eguneratuko dira. Era horretan, hartutako konpromisoak ez betetzeak jurisdikzio ez-kooperatiboan zerrendara itzultzea ekar dezake. Ikuspegi dinamiko horrek erantzun irmo eta eguneratua bermatzen du herrialde eta lurralde horiek iruzur egiteko erabiltzen direnean.

Aurrekoarekin lotuta, xedapen gehigarri bat onesten da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudian zerga paradisuari, informazio trukeak egiten ez duten herrialde edo lurraldeei edo tributazio txikiko edo deusezekoei buruz orain aldatzen den erregulaziora egiten diren igorpenak arautzeko. Horrez gain, xedapen iragankor bat ere onesten da esateko indarrean dagoen araubidea mantendu egingo dela herrialde eta lurraldeen zerrenda berria eta jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren zerga araubide kaltegarriak onetsi arte.

Atzerriko ondasunak eta eskubideak aitortzeko betebeharra mantentzen da (720 eredua), baina betebehara horri lotutako araubide juridikoaren alderdi jakin batzuk aldatuta Europako legeriara egokitzeko eta, horrela, Estatuko gainerako lurraldeetako harmonizazioa errazteko. Era horretan, aitortzeko obligazioa ez betetzea zergen foru arau orokorrean aurreikusitako arau orokorren arabera zigortuko da. Era berean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan, aitortzeko obligazioa ez betetzeak dituen ondorioak arautzeko, hurrenez hurren, zerga horiek justifikatu gabeko ondare irabazietarako eta errentak lortzeki buruzko presuntziorako aurreikusitako arau orokorrak aplikatuko dira.

un sistema automatizado mediante el cual el Consejo General del Notariado facilitará a la Administración tributaria la identificación de aquellas entidades con número de identificación fiscal revocado que hubieran pretendido otorgar un documento público, con el fin de mejorar el control efectivo de estas entidades y evitar situaciones de posible fraude.

De acuerdo con los nuevos parámetros internacionales, se adecúa el término de paraísos fiscales al de jurisdicciones no cooperativas.

Adicionalmente, la determinación de los países y territorios que tienen la consideración de jurisdicciones no cooperativas requiere de una actualización atendiendo a las revisiones y trabajos desarrollados en el ámbito internacional, tanto en el marco de la Unión Europea como en el de la OCDE, cuyos criterios han permitido identificar una serie de jurisdicciones no cooperativas, así como exigir una serie de compromisos a efectos de abandonar dicha categoría en el ámbito internacional, dando lugar a listas de países que se hallan en constante revisión.

De este modo, con la finalidad de combatir más eficientemente el fraude fiscal, resulta necesario ampliar el concepto de paraíso fiscal y para ello determinar la consideración de jurisdicción no cooperativa, atendiendo a criterios de equidad fiscal y transparencia, identificando aquellos países y territorios caracterizados por facilitar la existencia de sociedades extraterritoriales dirigidas a la atracción de beneficios sin actividad económica real o por la existencia de baja o nula tributación o bien por su opacidad y falta de transparencia, por la inexistencia con dicho país de normativa de asistencia mutua en materia de intercambio de información tributaria aplicable, por la ausencia de un efectivo intercambio de información tributaria con España o por los resultados de las evaluaciones sobre la efectividad de los intercambios de información con dichos países y territorios. Asimismo, con el fin de otorgar una respuesta más precisa a determinados tipos de fraude, conviene identificar aquellos regímenes fiscales preferenciales que resulten perjudiciales establecidos en determinados países o territorios que facilitan el fraude fiscal. En este sentido, una vez aprobados estos criterios, la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas adoptará las disposiciones necesarias para la publicación de la relación de países y territorios, así como regímenes fiscales perjudiciales, considerados jurisdicciones no cooperativas, que habrá de ser actualizada periódicamente. De esta forma, los incumplimientos de los compromisos adoptados pueden desembocar en una vuelta a la lista de jurisdicciones no cooperativas. Este enfoque dinámico garantiza una respuesta firme y actualizada frente a la utilización de dichos países y territorios con fines defraudatorios.

Vinculado a lo anterior, se aprueba una disposición adicional para regular las remisiones que en la normativa del Territorio Histórico de Gipuzkoa se hacen a la regulación ahora modificada relativa a paraísos fiscales, a países o territorios con los que no exista efectivo intercambio de información, o de nula o baja tributación, así como una disposición transitoria para mantener el régimen vigente en tanto se apruebe la nueva relación de países y territorios, así como regímenes fiscales perjudiciales, considerados jurisdicciones no cooperativas.

Se mantiene la obligación de declaración de bienes y derechos en el extranjero (modelo 720), modificando determinados aspectos del régimen jurídico asociado a dicha obligación para adecuarlo a la legalidad europea, y facilitar así la armonización con el resto de territorios del Estado. De esta manera, las repercusiones del incumplimiento de la obligación remiten a las reglas generales previstas en la norma foral general tributaria. De igual manera, en el impuesto sobre la renta de las personas físicas y en el impuesto sobre sociedades, las repercusiones del incumplimiento de la obligación quedan regulados dentro de las reglas generales previstas en dichos impuestos para las ganancias patrimoniales no justificadas y la presunción de obtención de rentas, respectivamente.

Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informazio obligazioarekin jarraituz, haren sistematika aldatzen da atal espezifiko bat sartuz atzerrian dauden moneta birtualak arautzeko; horrek ez du esan nahi, hala ere, betebeharraren edukia aldatzen denik, moneta horiek ondasun higigarrien apartatuan sartuta egon baitira orain arte. Gainera, betebeharrak hori zabaldu egiten da onuradunei, baimenduei edo zehaini den eran horiek xedatzeko ahalmena dutenei ere aplikatzeko.

ELGAren gomendioekin guztiz bat egiten dela ziurtatzeko, aldatzen da zenbat denbora eduki behar dituzten gordeta finantza entitateek dokumentu frogak, finantza kontuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen eska dakizkiekeen aitortpenak, eta informazioa emateko eta behar den arduraz jokatzeko betebeharrak betetze aldera erabilitako gainerako informazioa. Epe horrek ezin du inola ere izan bost urtetik beherakoa, finantza entitatea informazioa jakinaraztera behartuta dagoen epea amaitzen denetik aurrera.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, beharrezko aldatetarako egiten dira inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuetan («inbertsio funts eta sozietate kotizatu» deritzenetan, edo ETF, ingelesezko sigletan) egiten diren inbertsioen tratamendua homogeneizatzeko, kontuan hartu gabe kotizatzen duten merkaturia nazionala edo atzerrikoa den. Hala, Espainiako burtsan kotizatzen dutenen zerga tratamendua atzerriko burtsan kotizatzen duten inbertsio kolektiboko erakunde kotizatueta zabalitzen da geroratzeko araubidearen ez aplikagarritasunari dagokionez. Horrekin lotuta, araubide iragankor bat onesten da.

Moneta birtualen inguruko zerga egitateen kontrol tributarioa indartzeko, bi informazio betebeharrak berri ezartzen dira, moneta birtualak edukitzeari buruzkoa bata, eta haiekin egindako eragiketari buruzkoa bestea.

Horrela, moneta birtualen titularrek mantentzen dituzten saldoei dagokionez ezartzen da ezen, horrelako monetak eduki eta erabiltzea ahalbidetzen duten pasahitz kriptografiko pribatuak babestearren beste pertsona edo entitate batzuen izenean zerbitzuak ematen dituztenek saldo horiei buruz informatzeko obligazioa izango dutela. Obligazio hori moneta horien truke Zerbitzuan aritzen direnek ere izango dute esandako edukitze zerbitzua ere ematen dutenean.

Era berean, pertsona edo entitate horientzat ere, ezartzen da behartuta egongo direla moneta birtualekin egindako eragiketari buruz informatzera haietan esku hartzen dutenean (esku-rapenak, eskualdaketak, trukeak, transferentziak, kobrantzak eta ordainketak). Betebeharrak hori bera dute moneta birtual berrien hasierako eskaintzak egiten dituztenek ere.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, hobekuntza tekniko bat sartzen da sozietateen gaineko zergaren entitateen aurkibidetik irteteko erregulazioan, berez «hutssegina» kontzeptua ezin baita kredituz predikatu, entitate zordunetz baizik.

Ondarearen gaineko zergan, bestalde, zehazten da nola baloratu behar diren bizitza aseguruak haien hartzaileak erreskate eskubidea baliatzeko ahalmenik ez duenean; horrela, saihesten da bizitza-aurrezki aseguruak zergapetu gabe geratzea, haien ondare balioa ukatzeko baita. Era berean, balorazio arau berri bat ezartzen da bizitza aseguru batetik aldi baterako edo biziar-teko errentak jasotzen diren kasuetarako.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, ordezkariarekin lotutako aldatetarako sartzen dira, kokatzeko eta zirkulatzeko askatasunak erraztearen, Batasuneko Zuzenbidearekin bat etorriz.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentuak gaineko zergari dagokionez, hobekuntzak sartzen dira enpresaburuek eta profesionalak egindako salmenta eragiketarako eta

Continuando con la obligación de información de los bienes y derechos situados en el extranjero, se modifica su sistemática al incluir un apartado específico que regule las monedas virtuales que se encuentran en el extranjero, si bien ello no supone una modificación del contenido de la obligación, ya que, hasta la fecha, las mismas se incluían en el apartado relativo a los bienes muebles. Además, dicha obligación se extiende también a quienes tengan la condición de beneficiaria o beneficiario, o autorizada o autorizado o de alguna otra forma ostenten poder de disposición respecto a las mismas.

Para asegurar un perfecto alineamiento con las recomendaciones de la OCDE, se modifica el período de tiempo de conservación por las instituciones financieras de las pruebas documentales, de las declaraciones que resulten exigibles a las personas que ostenten la titularidad o el control de las cuentas financieras y de la demás información utilizada en cumplimiento de las obligaciones de información y de diligencia debida. Dicho período en ningún caso debe ser inferior a cinco años contados a partir del fin del período durante el que la institución financiera está obligada a comunicar la información.

En el impuesto sobre la renta de las personas físicas, se procede a homogeneizar el tratamiento tributario de las inversiones en determinadas instituciones de inversión colectiva, conocidas como fondos y sociedades de inversión cotizadas (ETF, por sus siglas en inglés), con independencia del mercado, nacional o extranjero en el que coticen. Así, se extiende a las instituciones de inversión colectiva cotizadas que coticen en bolsa extranjera el tratamiento tributario de las que cotizan en bolsa española respecto a la no aplicabilidad del régimen de diferimiento. Ligado con ello, se aprueba un régimen transitorio.

Con la finalidad de reforzar el control tributario sobre los hechos imposables relativos a monedas virtuales, se establecen dos nuevas obligaciones informativas referidas a la tenencia y operativa con monedas virtuales.

Así, se introduce una obligación de suministro de información sobre los saldos que mantienen las y los titulares de monedas virtuales, a cargo de quienes proporcionen servicios en nombre de otras personas o entidades para salvaguardar claves criptográficas privadas que posibilitan la tenencia y utilización de tales monedas, incluidos las proveedoras o los proveedores de servicios de cambio de las citadas monedas si también prestan el mencionado servicio de tenencia.

Igualmente, para estas mismas personas o entidades, se establece la obligación de suministrar información acerca de las operaciones sobre monedas virtuales (adquisición, transmisión, permuta, transferencia, cobros y pagos) en las que intervengan. Esta misma obligación se extiende a quienes realicen ofertas iniciales de nuevas monedas virtuales.

Por lo que concierne al impuesto sobre sociedades, se introduce una mejora técnica en la regulación de la baja en el índice de entidades del impuesto sobre sociedades, ya que, en pureza, el concepto de «fallido» no se puede predicar de los créditos, sino de las entidades deudoras.

En el impuesto sobre el patrimonio, por su parte, se determina cómo deben valorarse los seguros de vida cuando el tomador o la tomadora del seguro no tenga la facultad de ejercer el derecho de rescate, evitando de esta forma que se pueda eludir la tributación por los seguros de vida-ahorro cuyo contenido patrimonial es indudable. Asimismo, se establece una nueva regla de valoración para aquellos supuestos en que se perciben rentas temporales o vitalicias procedentes de un seguro de vida.

En el impuesto sobre la renta de no residentes se incorporan modificaciones en materia de representación que tienen por objeto favorecer las libertades de establecimiento y circulación, de acuerdo con el Derecho de la Unión.

En relación al impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados, se mejora la regulación relativa a la no sujeción a la modalidad de transmisiones patrimoniales

balio erantsiaren gaineko zergari lotutakoak ondare eskualdake- ten modalitateari ez lotzeari buruzko erregulazioan, eta zehazten da hori aplikagarria dela eskuratzaillea edozein dela ere.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari dagokionez, araudia Erkidegoko ordenamendura egokitzen da, Europar Batasuneko estatu kideetan egoitza duten zergadunek edo zerga arloko informazio trukean edo diru-bilketan elkarri laguntzeko araudia duten Europako Esparru Ekonomikoko estatuetakoez ez dezaten zertan izendatu, zerga horrekiko betebeharrei dagokienez, Gipuzkoako ordezkari Zerga Administrazioaren aurrean.

Horren ondoren, gorago aipatu den xedapen iragankorra jasotzen da, zerga zordunen zerrenda 2023an argitaratzeko araubide iragankorra ezartzen duena.

Xedapen indargabetzaile generiko batek eta azken xedapen batek ematen diote amaiera foru arauari, azken kasu horretan, indarrean noiz jarriko den eta zer ondorioak izango dituen ezartzeko.

**1. artikulua.** Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean:

**Bat.** 31. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Tributu bakoitzaren araudian ezarritako epea eta, edozein kasutan, sei hilabetekoa, igarotzen bada eta Zerga Administrazioak ez badu oraindik itzulketa ordaintzeko agindurik eman hari leporatu behar zaizkion arrazoiengatik, Administrazioak foru arau honen 26. artikuluan araututako berandutze interesa ordainduko du, zergapekoak zertan eskatu gabe. Ondorio horietarako, epea amaitzen denetik itzulketa jasotzeko eskubidea onesten duen erabakia hartzen den egunera arte sortuko da berandutza interesa.»

Aurreko paragrafoan aipatzen diren interesak kalkulatzeko, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik prozeduran izandako atzerapenak ez dira kontuan hartuko.»

**Bi.** 32. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Bidegabeko diru-sarrerak itzultzean, Zerga Administrazioak foru arau honen 26. artikuluan araututa dagoen berandutza interesa ordainduko du, zergapekoak eskatu behar izan gabe. Ondorio horietarako, bidegabeko diru-sarrera egiten denetik itzulketa jasotzeko eskubidea onesten duen erabakia hartzen den egunera arte sortuko da berandutze interesa.»

Aurreko paragrafoan aipatzen diren interesak kalkulatzeko, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik prozeduran izandako atzerapenak ez dira kontuan hartuko.»

**Hiru.** 47. artikulua honela geratzen da idatzita:

«47. artikulua. Pertsona edo entitate ez-egoiliarren ordezkari-ritza.»

Zerga Administrazioarekiko harremanen ondorioetarako, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren zergapekoek ordezkari bat izendatu beharko dute, zerga araudiak espresuki hala ezartzen duenean.

Zerga Administrazioari izendapen horren berri eman behar-ko zaio, araudian ezarritako eran.»

**Lau.** 78. artikuluari 6. apartatu bat gehitzen zaio, ondoren zehazten den edukiarekin, eta, horren ondorioz, oraingo 6., 7. eta 8. apartatuak 7., 8. eta 9. apartatu bihurtzen dira:

de las operaciones de venta realizadas por parte de empresarios y profesionales y de las operaciones sujetas al impuesto sobre el valor añadido, especificando que ello es aplicable cualquiera que sea la condición del adquirente.

En relación al impuesto sobre sucesiones y donaciones, se adecúa la normativa al ordenamiento comunitario, con el fin de que los residentes en Estados miembros de la Unión Europea o de Estados que formen parte del Espacio Económico Europeo con normativa sobre asistencia mutua en materia de intercambio de información tributaria y de recaudación no necesiten nombrar ante la Administración tributaria representantes en Gipuzkoa en relación con sus obligaciones por el citado impuesto.

A continuación, figura la disposición transitoria que anteriormente se ha citado, relativa al régimen transitorio correspondiente a la publicación para el año 2023 de la lista de deudores tributarios y deudoras tributarias.

La norma foral finaliza con una disposición derogatoria genérica y una disposición final reguladora de su entrada en vigor y efectos.

**Artículo 1.** *Modificación de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

**Uno.** El apartado 2 del artículo 31 queda redactado en los siguientes términos:

«2. Transcurrido el plazo fijado en las normas reguladoras de cada tributo y, en todo caso, el plazo de seis meses, sin que se hubiera ordenado el pago de la devolución por causa imputable a la Administración tributaria, ésta abonará el interés de demora regulado en el artículo 26 de esta norma foral, sin necesidad de que el obligado tributario lo solicite. A estos efectos, el interés de demora se devengará desde la finalización de dicho plazo hasta la fecha en que se adopte el acuerdo en que se reconozca el derecho a percibir la correspondiente devolución.»

A efectos del cálculo de los intereses a que se refiere el párrafo anterior, no se computarán las dilaciones en el procedimiento por causa no imputable a la Administración tributaria.»

**Dos.** El apartado 2 del artículo 32 queda redactado en los siguientes términos:

«2. Con la devolución de ingresos indebidos la Administración tributaria abonará el interés de demora regulado en el artículo 26 de esta norma foral sin necesidad de que el obligado tributario lo solicite. A estos efectos, el interés de demora se devengará desde la fecha en que se hubiese realizado el ingreso indebido hasta la fecha en que se adopte el acuerdo en que se reconozca el derecho a percibir la correspondiente devolución.»

A efectos del cálculo de los intereses a que se refiere el párrafo anterior, no se computarán las dilaciones en el procedimiento por causa no imputable a la Administración tributaria.»

**Tres.** El artículo 47 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 47. Representación de personas o entidades no residentes.»

A los efectos de sus relaciones con la Administración tributaria, los obligados tributarios que no residan en territorio español, deberán designar un representante cuando lo establezca expresamente la normativa tributaria.

La designación anterior deberá comunicarse a la Administración tributaria en los términos que señale la normativa.»

**Cuatro.** Se añade un apartado 6 al artículo 78, con el siguiente contenido, renumerándose los actuales apartados 6, 7 y 8 como apartados 7, 8 y 9:

«6. Etete eskaera bat izapidetzean, non eskaera egin baita etendura automatikoa lortzeko beharrezkoak ez diren beste berme batzuk erabilia edo bermeak aurkeztetik guztiz edo partez salbuetsita, edo akats aritmetiko, material edo egitatezkoan oinarrituta, ikusten bada badirela arrazoizko zantzuak pentsatzeko exekutatu nahi diren zorrak ezingo direla kobratu eta kobrantza larriki oztopatuta gerta daitekeela, kautelazko neurriak hartu ahal izango dira zor horiek kobratuko direla ziurtatzeko, eta, posible izango da, halaber, lehendik hartutako kautelazko neurrien indarraldia luzatzea.

Neurri horiek kendu egingo dira hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera, edo etete eskaerari baiezkoa ematen zaionean.»

Bost. Honela idatzita gelditzen da 92 ter artikulua:

«92 ter artikulua. Zerga obligazioen ez-betetze kasu esanguratsuen publizitatea.

1. Zerga Administrazioak erabaki dezake Foru Ogasunarekin zerga zor edo zehapenak dituzten zordunen zerrendak aldizka argitaratzea, erantzule solidario deklaratzeko zordun diren arnabarne, zirkunstantzia hauek betetzen direnean:

a) Ordaindu gabeko zerga zor eta zehapenen zenbateko osoa eta, hala badagokio, erantzule solidariotzat jotzean exijitu diren zor eta zehapenena, 600.000 euro baino handiagoa direnean.

b) Behin ordainketako borondatezko epea igarota zerga zor edo zehapen horiek ordaindu ez direnean.

Erantzukizun solidarioa deklaratzeko erabakietan sartutako zorren kasuan, beharrezkoak izango da foru arau honen 61.2 artikuluan jasotako ordainketa epea amaitzea, behin erantzukizuna deklaratzeko erabakia eta, hala badagokio, ordainketa exijitzeko erabakia jakinaraziz gero.

Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kanpoan geratzen dira geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zerga zorrak eta zehapenak.

2. Zerrendetan informazio hau jaso beharko da:

a) Zordunen identifikazioa, jarraian zehazten den eran.

— Pertsona fisikoak: izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

— Pertsona juridikoak eta foru arau honen 35.3 artikuluko entitateak: sozietate izen edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Argitalpenaren ondorioetarako aintzat hartu diren zorren eta zehapenen baterako zenbatekoa.

3. Artikulu honetan arautzen den publizitatea Gipuzkoako Foru Aldundiak aplikatuzko tributueta mugatuko da —zehapen eta berrikuspen ahalmenak ere hari dagozkionean—, eta, beraz, ez da aplikagarria izango Gipuzkoako lurralde historikoko toki entitateek Foru Aldundiaren alde eskumenak eskuordetu dituenear.

4. Zerrendan sartzeko beharkizunak betetzearen ondorioetarako hartuko den erreferentzia data hura argitaratzeko erabakia hartu aurreko urteko abenduaren 31 izango da, erabakiaren egunean ordaindu gabe dagoen zenbatekoa edozein dela ere.

Zerrendan sartzeko proposamena zordunari komunikatu behar zaio, eta zordunak 10 egun izango ditu alegazioak aurkezteko, komunikazioa jaso eta biharamunetik aurrera. Ondorio horietarako, komunikazioa egindakotzat jotzeko aski izango da Zerga Administrazioak frogatzea gutxienez behin saiatu dela komunikazioaren testu osoa interesdunaren zerga helbidean jakinarazten.

«6. Cuando en la tramitación de una solicitud de suspensión con otras garantías distintas de las necesarias para obtener la suspensión automática, o con dispensa total o parcial de garantías, o basada en la existencia de error aritmético, material o de hecho, se observe que existen indicios racionales de que el cobro de las deudas cuya ejecutividad pretende suspenderse pueda verse frustrado o gravemente dificultado, se podrán adoptar medidas cautelares que aseguren el cobro de las mismas, pudiendo, asimismo, ampliarse el plazo de vigencia de medidas cautelares previamente adoptadas.

Dichas medidas serán levantadas de acuerdo con lo dispuesto en el apartado siguiente, o cuando se acuerde la suspensión solicitada.»

Cinco. El artículo 92 ter queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 92 ter. Publicidad de situaciones de incumplimiento relevante de las obligaciones tributarias.

1. La Administración tributaria acordará la publicación periódica de listados comprensivos de deudores a la Hacienda Foral, incluidos los que tengan la condición de deudores al haber sido declarados responsables solidarios, por deudas o sanciones tributarias cuando concurren las siguientes circunstancias:

a) Que el importe total de las deudas y sanciones tributarias pendientes de ingreso, incluidas en su caso las que se hubieran exigido tras la declaración de responsabilidad solidaria, supere el importe de 600.000 euros.

b) Que dichas deudas o sanciones tributarias no hubiesen sido pagadas transcurrido el plazo de ingreso en periodo voluntario.

En el supuesto de deudas incluidas en acuerdos de declaración de responsabilidad solidaria será necesario que haya transcurrido el plazo de pago del artículo 61.2 de esta norma foral, tras la notificación del acuerdo de declaración de responsabilidad y, en su caso, del acuerdo de exigencia de pago.

A efectos de lo dispuesto en este artículo no se incluirán aquellas deudas y sanciones tributarias que se encuentren aplazadas, fraccionadas o suspendidas.

2. En dichos listados se incluirá la siguiente información:

